

INDARRALDIA: EAEn zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta ibilbideetan zirkulatzeko baimen bereziak

Indarraaldia

Aldi baterako edo bidaia bakar baterako eman ahal dira. Baimenaren aldia Trafiko Zuzendaritzaren ebazpenak zirkulazio-murrizketak ezarrita dituen data horietako bakoitzean zirkulatzea nahitaezkoa delako egiaztapenaren menpe egongo da, beti ere baimena eskatzen den aldiaren barruan.

Irizpide bera erabiliko da eskaera beraren barruan data baterako baino gehiagorako baimena eskatzen bada.

a) Baimenaren datuak

Baimen bakoitza ibilgailu bati edo ibilgailu-talde bati eman behar zaio eta horretan datu hauek agertu behar dira: ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen matrikula eta ezaugarri nagusiak, garraiatzen den salgaia, eraginpeko bideak eta garraio-baldintzak.